

ERREPUBLIKA (POLITEIA) VII. LIBURUA

1. -Ondoren —esan nuen— irudika ezazu gure giza izaera, heziera eta hezierarik ezaren arabera. Kontu egizu, bada, sarrera luzea duen lurpeko bizi-leku bat, argitara zabalik dagoena. Bertan gizakiak umetatik bizi dira, zangoetatik eta lepotik lotuta. Halatan, geldirik daude, aurrerantz besterik begiratu ezin dutelarik, lokarriek ez baitiote burua jirutzen uzten. Haien atzealdean, urrutitik sute baten argitasuna atzematen da, eta gorago, sutearen eta atxilotuen artean, bide gora bat. Bidean barrena, ohartu beharko duzu hesia eraiki dala, titiriteroak ikusleengandik bereizteko jarri ohi denaren antzekoa, zeinen gainetik txotxongiloak agertzen baitituzte.

— Badakusat —esan zuen.

— Oraingo honetan, hesiaren altuera gainetik irudika itzazu denetariko tresneria daramatzaten gizonemakumeak, eta giza zein abere estatuak harrizkoak, zurezkoak, denetarikoak gainditzen dituztenak. Eta pentsatzekoa denez, eramaileon arteko batzuk hizketan joango dira eta beste batzuk isilean.

— Bai arraroa zuk deskribatutako irudia eta atxiloak —esan zuen.

— Gu bezalakoak —esan nuen—. Lehenengo eta behin, uste al duzu han egon direnek, beren buruez edo beren kideez, aurrez aurre dute leizean suak islatzen dituen itzalak izan ezik, besterik ikusten dutela?

— Nola —esan zuen— bizitza osoan zehar buruari mugitu barik eusten beharturik egon badira?

— Eta daramatzaten objektuez, ez al da berdin gertatuko?

— Zer besterik ikusiko dute, bada?

— Eta elkarrekin hitz egiteko aukera balute, ez al duzu uste hizketaldia aurretik igarotzen diren itzalei atxikiko litzaietara?

— Jakina.

—Eta presondegia hartan, atxilotuen atzetik dabilen norbait mintzo den bakoitzean, atzetik oihartzunik baletor, igaroz doan itzala mintzo dala ez al diote i ritzi ko?

— Bai horixe, ala Zeus! —esan zuen.

—Beraz, dudarik ez da —esan nuen—. Horrelakoek gauzen itzalak benetakotzat hartuko dituzte.

— Besterik ezin da izan —esan zuen.

— Kontu egiozu, bada —esan nuen— zer gertatuko litzateke kateetatik askatu, beren zentzugabekeriaz osatu eta giza izaeraren arabera, jarraian azaldu bezala arituko balira? Haietariko bat edo baste lokarrietatik askatu, bat-batean zutitu, lepoa jiratu, eta argitara begiratzera behartuko balitz, hau guzti hau egindakoan min hartuko balu, eta argi distiragatik lehen begiztatzen zituen itzalei oraingoan begiratzerik ez balu, zer erantzungo luke norbaitek esango balio lehengoak alferreko itzalak zirela, eta oraingo honetan benetakoetatik askoz hurbilago dagoela? Bestetik, iragan diren objektuak zer diren galdetuko balitzaie, ez al duzu uste aho hete hortz egongo litzatekeela, eta lehen ikusten zituenak oraingoak baino egiazkoagoak direla erantzungo lukeela?

—Askoz ere egiazkoagoak —esan zuen.

2.—Eta argiari berari begiratzera behartuko banu, ez al duzu uste begietan min hartuta alde egingo lukeela, erraz ikus ditzakeen objektuetara itzultzearen, honakoak zehatzagoak direlako ustetan?

— Hala da —asan zuen.

—Eta nor edo nork handik indarrez eramango balu —asan nuen— malda gogor eta latz hartatik gora behartuz, arrastaka eguzki argiraino heldu arte utzi barik, ez al deritzozu narraz eramanez gero atsekabetuko litzatekeela, eta behin argitaraino helduz gero, begiak argitan blai dituelarik, ez al duzu uste egiazko gauzetatik bat berari ere begiratu ezinean egongo litzatekeela?

— Horixe bai, oraingoz bederen, ezindurik legoke.

—Ene ustez ohitu egin beharko luke, goialdeko gauzak ikustera ailegatu ahal izateko. Erraz modura ikusiko lituzkeen lehenengoak itzalak lirateke; ostean, uretan islatutako giza irudiak eta gainerako objektuenak. Ondoren, zerukoak eta zerua bera, ilargiaren zein izarren argitan gauzez errazago begiztatuko lituzke, eguzkia eta ingurukoak baino hobeki.

— Jakina.

— Eta azkenik, nire ustetan, eguzkia bera den bezalaxe ikustatzeko moduan legoke, ez, ordea, uretan nahiz beste inon islatutako eguzkiaren irudia.

— Hala beharko luke izan —esan zuen.

— Ostean, eguzkiari dagokionez, ebatziko luke bera dela urtaroak eta urteak egiten dituen, mundu ikusgarria arautzen duena, bai eta beraiek begiztatzen duten ororen egilea ere.

— Bistan da —esan nuen— pentsamendu horietara helduko litzatekeela.

— Lehen begira zituzten itzaletatik zeintzuk atzetik, zeintzuk aurretik igarotzen ziren beste inork baino zorrotzago eta hobeki barrundaturik, gertatuko dena igartzeko gai direnentzat sariak edota ohoreak baleude, uste al duzu omenduen bekaizkoa izango dutela, ala, Homerori gertatu bezala, ez al lukete bortitzago opatuko «nekazaria izanik beste gizon txiro batentzat lanean jardun» eta jasan ahala jasan, lehengo duda-mudako bizimodura itzuli baino?

— Hala uste dut nik —esan zuen— alegia, beste edozein biziera hasierakoa baino nahiago duela.

— Kontu egiozu orain honako honi —esan nuen—: berriro behera bueltatzekotan, lehengo lekura itzuliko balitz, begiak ez al litzaizkio itsutuko, eguzki argiari bat-batean alde egindakoan bezala?

— Bai horixe —esan zuen.

— Eta beti kateaturik egon direnekin, itzalak oztaozta begiztatzen dituenak, ohitzeko aldi luzea behar baitu, berriro mintzatu beharra balu, eta han goian egonik, begiak makaldurik dakartzala ikusita, barrukoek ez al liokete barre egingo, eta hara gora igotzea ez duela merezi esango? Eta inor askatzen eta igoarazten saiatuko balitz, hari oratzeko ahalbidea izanez gero, ez al lukete erailko?

— Noski —esan zuen.

3- Izan ere —esan nuen— honako irudi hau bere osotasunean aplikatu beharra dago, Glaukon adiskidea, lehenago esandakoari. Begiz ikusgarria den eremua presondegiarekin alderatu behar da, eta ber tako suaren argia eguzki indarrarekin. Gora igotzea eta horko gauzak atzimatea, mundu ulergarirainoko arimaren igoerarekin alderatzen baduzu, nire iritzikoa izango zara, zuk ezagutu nahi duzun eran, nahiz eta Jainkoak soilik dakien egiazkoa den.

Azkenik, bada, hona hemen ene iritzia. Ulergarriaren munduan atzematen den azkena ongiaren ideia da, nekez atzeman ere. Behin susmatuz gero, gauzetan den alderdi zuzen eta eder guztien zergatia dela ebatzi behar da; beste aldetik, mundu ikusgarrian argia eta argaren emailea sortu dituen eran, mundu ulergarrian egiaren eta ezagumenaren sortzailea dugu ongia, eta berau atzeman behar du bizitza pribatuan zein publikoan zentzunez jokatu nahi duenak.

—Ni ere zure iritzikoa nauzu —esan zuen— ulertu ahal dudan neurrian.

—Izan ere —esan nuen— hurrengo honetan ere arrazoia eman iezadazu: horretaratu direnek giza kontuetan nahastu nahi ez izatea ez da harritzekoa, osterantzean beren arimek goian egon nahi dute, ene iritziz zentzuduna baita lehen aipatutakoarekin alderatuz gero.

—Zentzuduna da, bai horixe —esan zuen.

—Eta zer? Oraindik gaizki ikusi eta inguruko ilunbetara nahikoa ohituta egon gabe, epaitegietan edo beste edozein lekutan horrelakorik sekula atzeman ez dutenekin bidezkoaren itzalei buruz eztabaidatzera behartuta balego, zuretzat, harritzekoa al da —esan nuen— jainkotiar izakien ikuskizunetik giza huskerien ikuskizunera igarotzean inor baldar eta barregarri agertzea?

—Ez da ez, inor harritzekoa —esan zuen.

—Beraz, zentzudunak gogoratu beharko du, bi erara eta bi zioagatik lausotu ohi direla begiak: argitik ilunbera eta ilunbetik argitara igarotzean. Behin pentsatuz gero arimari ere gauza bera gertatzen zaiola, norbait nahas-mahasean dagoela igarri eta ikuskarien muinari erreparatzen ez dakiela ikusiz gero, ez dio arinkiaz barrerik egingo, eta bai pentsatuko bizitza argitsuago batetik etorririk, ohiturarik ezak itsututa ote dagoen, ala jakinezatik argi indartuago batera etorrira gehiegizko argiak itsuturik dagoenentz. Halatan, lehenari zorioneko iritziko, eta bigarrenari errukia izango diogu, eta bigarren honetaz barre egin nahiko balu, argitasunetik etorritakoaz baino irrigaitzagoa litzateke bere barre-algara.

-Diozuna oso da zentzunekoa —esan zuen.

4.—Beharrezkoa da, beraz —esan nuen— aurrekoa egia izatekotan, guk honela iriztea: heziera ez da batzuek erakutsi nahi duten bezalako. Dioten legez, nik uste, jakituria ematen diote jakituririk ez duen arimari, begi itsuan ikusmena ipintzen duten bezala.

-Halaxe da, haiek dioten legez —esan zuen.

— Oraingo gorabehera honek erakusten digu —esan nuen— norik bere ariman duen ahalmenak, ikasteko ahalbideak, alegia, jalo diren gauzakietatik alde egin behar duela, arima oso-osorik delarik, begia ilunbetik argitara gorputz osoarekin batera itzuli den moduan, harik eta izatea, bai eta izatearen alderdirik distiratsuena ere, ongia kasurako, atzemateko gai izatera ailegatu arte, begia ilunbetik argitara bihurtzeko, ezta?

— Bai hala da.

— Hortaz —esan nuen— heziera honelakoa da: adimena aldatu eta zuzentzeko biderik errazena eta eraginkorrena bilatzeko trebezia, ez, bada, ikusmena ezartzeko, baizik eta ikusmenaz hornituta izanik, behar den lekurantz biratu eta begiratzeko.

— Hala dirudi —esan zuen.

— Eta gainerako ahalmenak, arimarenak, baliteke gorputzezkoen tankerakoak izatea, zeren hasieran egon ez arren, ariketaz eta ohituraz geroago sortuak izan baitaitezke; ezagumenari dagokionak, aldiz, jainkozkoago dirudi bere indarra egundo galtzen ez duelako, on eta mesedegarri edo txar eta kaltegarri suertatuz, nola eramaten den. Ez al zara ohartu bihozgabeko eta burutsuek zein zorrotz jokutzen duten, eta zein argi burutzen duten egin nahi dutena, ez baitute ikusmen ahulik, azken batean gaiztakerien eskupean dagoelarik, zenbat eta burutsuago orduan eta handiagoak izango dira arimak egingo dituen bihurrikeriak.

-Ohartu ez naiz, ba —esan zuen.

—Bada —esan nuen— sabelkoikeria eta abarreko gurariak, berunezko bolak bezala arimaren begirada beherantz bihurturik dutenak txikitatik kimatu edo ebaki izan balira, halako atseginetatik arima askatuta, egiantz begira egon balitz, gizonemakumeen beraien arimak argiago ikusiko luke, oraingo honetan ikusten duena begiratu beharrean.

—Zentzunezkoa da —esan zuen.

-Eta zer? —esan nuen— esandakoaren arabera, ez al da zentzunezkoa pentsatzea heziera gabeak, egiatik aldeniak, ez direla inoiz egokiak izango hiria gobernatzeko, ez eta azkenera arte ikasten dihardutenak ere? Batzuek, bakarrean edo taldean, beren jokabidea hara bideratzeko, bizitzan jakineko helbururik ez dutelako, eta bestetsuek zorionekoen irletan daudelakoan, ez baitute horretan (politikan) jardungo.

-Egia da —esan zuen.

—Hortaz, gure zeregina da —esan nuen— hiri sortzaileona alegia,

onentsuenak ikasketa hauetara bultzatzea, lehen esan baitugu bikaina dela, eta ongia ikus dezaten eta aipatutako igoera hura egin; behin igota, ikusmenaz gozatuz, bere eskuetan jartzen dena ez zaie onartuko.

—Eta zer ote da?

-Han goian geratu —esan nuen— eta berriro behera atxilotuengana joan nahi ez izatea, ez eta beraien lankide eta ohorekide izateko nahia ere ez zaie eskura jarriko, ohoreak gutxi zein asko balio izanik ere.

Orduan, bada —esan zuen— kalte egingo al diegu, eta bizitza txarragoa emango, hobeto bizitzeko aukera izanik?

5—Adiskide maitea, berriro ahaztu duzu —esan nuen— legeari ez zaiola interesatzen egundoko zorientasunaz gozaten duen gizatalderik egotea; osterantzean, hiri osoan zoriona zabaltzen ahaleginduko da, eta konbentzitura edo behartuta hirikideen artean bizikidetasuna ere sartzen, bakoitzak taldearen mesedetan eman ditzakeen laguntzak emanaraziz. Legeak berak tankerako gizon-emakumeak hezitzen ditu, ez baina, norberak nahi duen eran jarduteko, baizik eta estatuaren batasuna lortzeko asmotan.

—Bai hala da —esan zuen— ahaztuta nuen.

—Kontu egizu —esan nuen— gure artean dauden filosofoei ez diegula kalterik egingo, ordea, hitz zentzuzkoak erabiliz behartuko ditugu besteen ardurara eta zaintza har dezaten. Beste hirietan dauden beren gisako hirikideak hiriko zereginetan parte hartu ez izana ulertzeko da, nor bere kasa hezitzen baita, eta bere heziera inori zor ez dionak ez du ezer ordaindu beharrik. Horrez gainera, adieraziko diegu guk sortu ditugula, beren onerako eta gainerako hirikideen onerako, erlauntzetan bezala, buruzagiak eta erregeak izan daitezten, beste hirietakoak baino hobeki heziak, filosofia eta politika batera jar dezaten. Izan ere, banan-banan zuen kideen bizilekura jaitsi eta ilunetan ikusten ohitu behar duzue. Behin ohituz gero, barrukoek baino mila aldiz hobeto ikusi eta ezagutuko duzue irudi bakoitza zer den, zuzena, ongia eta ederra egiatan ezagutu baitituzue. Hau honela, gure hiria egunaren argitan biziko da, eta ez ametsetan, gaur egun gehienak bizi diren moduan, huskeriak direla eta ez direla, edota agintea lortzearren on handia bailitzan, borrokan elkarrekin ari dira eta. Ene ustetan, egia, aldiz, honakoa da: agintari izango direnak agintea eskuratzeko grinean ez dauden hirietan bizierarik onena izango dute, beste inon baino istilu gutxiagorekin, eta bestelako agintariak dituen hirian bestela gertatuko da.

-Ezin uka, esan zuen.

-Uste al duzu hau entzunik, ikasleek ez dutela gure esana beteko eta txandaka dagokien auzolanari uko egingo diotela, ideia hutsen alorrean elkarrekin bizitzearren denborarik gehiena?

—Ezinezkoa da —esan zuen— gizon-emakume zuzenak izanik, gauza zuzenak aginduko dizkiegu eta. Hala ere, haietariko bakoitzak ezin ukatutzat hartuko du gobernua, hirietan han-hemenka agintea izan ohi dutenek ez bezala.

— Bai ba —esan nuen—. Agintea izango duteneei gobernariarena baino bizimodu hoherik eskaintzeko parada baduzu, baliteke zuk ongi gobernaturiko hiria izatea, benetako aberatsek gobernatutako hiri bakarra izango baita, ez urretan aberatsa, zorientsu izateko oparo aberastu behar denaz baizik: bizikera on eta zentzunekoa. Politikan jardungo duten ondasunzaleak etekinak harrapatuko dituztelako ustetan politika zereginetara badatoz, ez da ezer onik. Agintea borrokatoki bihurtzen denean, borrokaldiak beraiek eta beraien hiria hondatuko ditu.

-Bai horixe —esan zuen.

-Benetako filosofoaz aparte, ezagutzen al duzu zeregin politikoa gutxiesten duen beste inor?

—Ez, ala Zeus! —esan zuen.

-Ez da komeni gobernu lanetara zuzentzea agintea gutzizatuz, bestela, aginte egarri direnak elkarren aurka borrokatuko dira.

-Zelan ez?

—Nortzuk behartuko dituzu hiriaren zaintza bere gain hartzera, Estatuaren aginteraz ikasienak izateaz gainera, beste ohore batzuk merezi eta politikoarena baino bizimodu bobea daramatenak izan ezik?

—Beste inor ere ez —esan zuen.

13. Uste dudanez —esan nuen— aipatutako jakintza hauek guztiak ikasiaz, denen artean dauden barneko lotura orokorrak aztertzeke asmoa baldin badugu, bilatzen dugun xedeari lotuta guztiz onuratsua litzateke, bestela hutsala.

-Zure iritzikoa nauzu —esan zuen— hala ere, bai luze eta neketsua eskatzen duzun lana. Sokrates.

— Ez al dakizu hauek guzti hauek egiatan ikasi beharreko doinuaren preludea besterik ez direla? Jakintza hauetako adituak honezkero ez dira dialektikoak.

— Ez, ala Zeus! —esan zuen— topo egin ditudan gutxi batzuk izan ezik.

—Orduan, bada —esan nuen— jakingarri bakoitzaren zentzuaz galderarik zein erantzunik emateko gauza ez dena, zure iritziz, jakin beharrekoaz ezer jakingo al du?

—Ez dut uste —esan zuen.

— Horregatik, Glaukon —esan nuen— ez al da berau dialektikak gauzatzen duen doinua? Honako jakintza hau, beren-beregi adimenezkoa den arren, begiekin aldera dezakegu, arestian esan bezala, lehenik eta behin animaliak

atzematen ditu, eta poliki-poliki izarrak, azkenik eguzkia atzeman arte. Hori horrela, zentzumenak batere erabili gabe, arrazoimenaz baliaturik gauzen bere baitangoa azaltzeko, ongia bere horretan zer den argitu arte, ekinaren ekinez horretaratzen denean, ulermenezko alorraren azkenera heldu da.

— Bai horixe —esan zuen.

— Eta zer? Honako bidaia hau ez al da dialektika deritzozuna?

— Baiki.

—Kateetatik askaturik —esan nuen— itzaletatik itxurazko irudietara eta sutera bihurtzea, baita haitzulotik eguzkiak argitutako lekura bihurtzea ere, adierazi ditugun ikasketen eraginpean daude. Hara ailegatzean, bere begiak ahulak direnez gero, hasieran ezin die animaliei, ez landareei, ez eguzkiari begiratu, hori dela eta, uraren azalean islatutako irudiak eta itzalak atzeman behar ditu lehenik; irudiok benetako objektuenak dira, haitzuloan ziren itxurazko irudiak ez

—Nire aldetik —esan zuen— ados nago. Hala eta guztiz ere, onartzea uko egitea bezain nekoso izango zait. Honakook hurrengoetan ere sarri hizpide izango ditugunez gero, orain esan bezalakoa dela demagun, eta, preludioa aztertu dugun eran doinua ikertzeari ekingo diogu. Esaiguzu, bada, dialektikaren mamia zein den, zenbat mota bereizten den, bai eta zeintzuk urrapide ere dituen. Behin bide hauetatik bertaratuz gero, gure bidaia bukatutzat eman eta azkenik atsedean hartu ahal izango dugula dirudi.

—Nolanahi ere, ez zara niri jarraitzeko gauza izango, Glaukon maltea —esan nuen— nire aldetik on beharrez jokatzeko dudaren arren. Hala, ez itxurazkoa, egiazko ongia baizik, bere horretan somatu egingo zenuke, nik atzematen dudaren ikuspegitik begiraturikoa behinik behin. Honelakoa edo bestelako ongia izango den ezbaian sartzea ez du merezi; haatik onartzekoa da ongia izan badela eta ezagutu beharrekoa, ezta?

—Nola ez?

-Prestakizun gisa landutako ikasketetan trebe denak dialektikaren bidez soilik soma dezake ongia, eta beste bide batetik ezin.

-Eta hori onartzea ere merezi du —esan zuen.

— Hona hemen inork ukatuko ez duena: dialektika bide bakarra da izate bakoitzaren zerizana sistematikoki barrundatzeko. Beste ezagutza gehienak, aldiz, gizakien iritzi eta gogoen gainean sortuak dira, sorketaz eta ekoizpenaz aritzen dira, edo gauza materialak zaintzeaz arduratzen dira. Gainerakoak, hala nola geometria eta jarraikoak, izatearen alderdiren bat antzematen duten horiek, hitzartuta ezin antzematuz, izatearekin amets egiten dute, bitarteko hipotesiak oso-osorik alde batera uzten ez dituzten arte. Batetik ezagutzaren abiapuntua zalantzarria denean, eta bestetik bai ondorioa bai bitartekoa ezezagunak direnean, halako argudiaketak nolatan deituko ditugu zientzia?

-Inola ere ez —esan zuen.

14. Hipotesiak bertan behera utzita, dialektika jatorrizko iturburura abiatzen da sendo, eta arimaren begia basatzatik poliki-poliki azaleratu eta igoerazi egingo du gorantz, arestian aipatutako ikasketak bitarteko dituelarik. Ohituraz aipatu ikasketei ezagutza izena jarri diegun arren, beste izen bat beharko lukete izan, ustea baino argiagoa, eta ezagutza baino ilunagoa denari ezartzeko modukoa. Aurreko batean, pentsamendua edo arrazoizko ezagutza izena erabili izan dugu. Hala eta guztiz ere, izena dela kausa ez genuke eztabaidarik sortu beharko, gurea bezalako aparteko ikergaia aurrean dugularik.

— Ez horretan —esan zuen.

— Nahikoa da —esan zuen— aurrean bezalaxe, lehen atalari ezaguntza (zientzia) izena jarriko diogu; bigarrenari pentsamendua; hirugarrenari susmoa eta irudimena laugarrenari. Azken bi atalek ustea delakoa osotzen dute, eta lehenengo biek adimena. Ustea sorketari lotzen zaio, eta adimena zerizanari.

—Hau honela, zerizana sorketarekin elkartzen da adimena ustearekin elkartzen den eran. Bai ustearen atala, bai adimenarena bitan banatzeko arrazoia, nahiz eta honetako analogia asmatu izana alde batera utziko ditugu, Glaukon, orain arte baino luzeago ezbaian gal ez gaitezen.

— Nire aldetik —esan zuen— ulertzen ditudan neurrian behinik behin, honako kontuekin ere ados nago zurekin.

— Gauza bakoitzaren izateaz ohartzen denari dialektiko deitzen al diozu? Bere baitarako edo beste inori izatea adierazteko ezindurik dagoenak ez du ezagutzarik lortu.

— Bai ba —erantzun zuen.

— Ongiarekin gauza bera gertatzen da. Arrazoimenaz baliaturik ongia zer den zehaztu eta bereizteko gauza ez denaz, eta kritika guztien gaineratik igaro, eta eragozpenak argudio sendo batez zanpatuz, borrokaldian bezala ausardi handiz aurrera egiteko gauza ere ez denaz, ez al duzu esaten ez ongia bere senean, ez inongo gauza onik ezagutzen ez duenik? Ongiaren irudiren bat atzematen badu, ustearen bidetik lortuko du, eta ez ezagutzarenetik. Horrez gainera, bizitza honetan zehar igarotzean, amets besterik ez du egiten, harik eta Hadesera jaitsita lozorrotik esnatu arte.

— Bai, ala Zeus!, ozenki esango ditut gauza horiek guztiak.

— Bada, orain hitzez hezten dituzun ikasleen ardura egiatan bazenu, ez zenieke hiriaren agintea emango, ez eta kexka handiko kontuetan eskuramenik ere, zentzunekoak ez balira.

— Ezin uka —esan zuen.

-Izan ere, galderak eta erantzunak ematen irakasten duenarekin buru-belarri jarduteko aginduko al zenieke?

-Bai horixe —esan zuen.

- Ez al duzu uste —esan nuen— dialektika gainontzeko ikasketen erpinean dugula, eta bera baino gorago jartzeko gisan ez dagoela ezer, ikasketen inguruko koska bukatutzat dugularik?

- Bai hala uste dut nik ere bai—esan zuen.